


Donostiarren uzta Durangon

Durango liburu eta diskozaileen jopuntu izango da aurten ere, abenduaren 4tik 8ra bitartean. Azokan ez da faltako donostiarrek egindako lanik: eleberriak, ipuinak, saiakerak, diskoak... Hona idazle eta musikari donostiarren uzta.



Ainhoa Irazu
Aritz Gorrotxategi idazle donostiarra liburu sorta besapean joango da Durangoko azokara. Helduentzako literaturan aurtengo idazle emankorrenetakoa dugu Gorrotxategi, hiru liburu argitaratu ditu eta: "Egurra Pinotxori" (Alberdania), "Galtzontziloak autobusean zintzilik" (Erein) eta "Taxi bat Hamletentzat" (Hiria). Lehendabizikoak helduentzako narratiba lanak dira, eta azkena, berriz, poesia liburua. 2000. urtean, bere lehen lanarekin, Irun Hiria Literatur Saria irabazi zuenetik, indartsu dabil idazle gaztea.



Koldo Izagirrek eta Luis Mari Mujikak ere gogor lan egin dute 2002an, izan ere, bina liburu idatzi dituzte helduen atalean.

Koldo Izagirrek "Mexta esaten dioten agirretar baten ibili herrenak" (Elkar) eta "Idi orgaren karranka" (Elkar) kaleratu ditu. Lehendabizikoa izenberek elaberriaren argitalpen berri-tua da. Bigarrena, berriz, Victor Hugok Euskal Herrian egindako bidaia-irakurketasuna biltzen duen libururen euskarazko bertsioa da.

Luis Mari Mujikak, iaz "Barne Ibilera. Poemategia" (Hiria) idatzi ondoren, berriro ere nobelagintzaren bidea hartu du

"Mirakontxako solasak" eleberrian (Hiria). Horrez gain, "Bideko prosa" bidaia liburua plazaratu du argitaletxe berarekin.

Bestalde, Ramon Saizarbitoriak eta Joan Mari Irigoienek liburu bana prestatu dute aurtengo hitzordu handirako. Ramon Saizarbitoria, "Gorde nazazu lurpean" lanarekin lortutako arrakastaren ondoren, "Kardinskyren tradizioa" (Erein) eleberririk laburrarekin joango zaigu Durangora. Gazteekin harremanetan jartzeko arazoak dituen neskatua da istorioaren protagonista.



Joan Mari Irigoien altzatarrak "Ipuin batean bezala" (Elkar) eleberria labe-tik atera berri du, bikote baten maitasun harremana hizpide duen lana, alegia.

Ziur asko, aipatutako liburuok Durangon gehien saldutakoen artean egongo dira.

Haur eta gazte literatura

Haur eta gazte literaturari tarte zabala eskaintzen dio azokak, eta ohi denez, esparru horretan ere ez da faltako idazle donostiarren lanik.

Hantxe topatuko dugu Maite Gonzalez Esnal antiguatarraren "Maidarren taupada bilduma". Itzulpengintzan eta haur eta gazte literaturan aritutako emakume honek Alberdania argitaletxearekin kaleratu du liburua.

Beste bi emakume ere aipatu behar dira haur eta gazte literaturaren atalean: Ixiar Rozas eta Mariasun Landa.



271 postu azokan

Abenduaren 4an Durangoko azoka irekiko da, eta lau egunen buruan azoka aurtengo kultur ekoizpenaren erakuslehi izango da.

Azokaren garrantziaz jabetzeko nahikoa da zenbakiei erreparatzea: 271 postu, 15 aldizkari, 44 argitaletxe, 15 disketxe, 9 erakunde, 38 kultur elkarte, 9 banatze enpresa, 2 egunkari, 3 unibertsitate... Aurten azokaren 37. edizioa egingo da eta Pedro Pablo Arrindak egingo du ohiko aurkezpena.





Ixiar Rozasek -Larsarten jaioa, baina Donostiarekin estu lotua- jarraipena eman dio joan den urtean sortutako Yako pertsonaiari, "Yako eta haizea" lanean (Erein). Mariasun Landak, berriz, Al-

berdaniak argitaratutako "Marlene eta taxizapata" eta "Kokodriloa ohe azpian" liburuekin, sorkuntza une gozoan dagoela erakutsi du.

Eta hiru emakumeon artean, bi gizonzko: Felipe Juaristi eta Seve Calleja. Felipe Juaristik, "Iratzarri nahi ez duen printzesa" kaleratu du Alberdaniarekin. Hala ere, ale kopuruari dagokionez, Seve Calleja dugu txapeldun, lau liburu eramango baititu azokara: "Dado iratxoa" (Elkar), "Zuriñek beltza izan nahi du" (Ibaizabal), "Nire urtebetzea zuretzat opari" (Desclée) eta "Ez gara berdinak, baina berdin da" (Desclée).



Saiakera

Saiakeraren atalean, Alizia Stürtze eta Iban Zaldua historialariak dira protagonistak. Alizia Stürtze egitarra Gaiak argitaletxeren bi liburutan parte hartu

Hiru liburu eramango ditu azokara Aritz Gorrotxategik

du, bertako beste hainbat kiderekin batera: "Eguneroko esamoldeak" eta "Emakumeak XX. mendeko historian". Azken liburu honetan, lan polita egin dute, joan den mendean nola edo hala protagonista izandako emakumei buruzko informazioa bildu dute eta.

Iban Zalduak, bestalde, "Obabatiko tranbia" (Alberdania) idatzi du. "Tradizioak" eta Espainian arrakasta handia izandako "La isla de los antropologos" liburuen egileak 1989-2001 bitartean idatzitako euskal literaturari buruzko gogoeta egin du lan honetan. Alberdania argitaletxeko arduradunek diotenez, kritikari kritika egin dio Zalduak. Besteak beste, poesia, nobelagintza, ipuingintza, umorea eta kontsumo literatura hartu ditu hizpide.



Musikan apalago

Bistan denez, donostiarraren aurrengo literatur uzta oparoa da. Ezin gauza bera esan, ordea, musika ekoizpenari buruz. Bila eta bila ibili ondoren, lau disko besterik ez ditugu aurkitu.

Joxerra Senperena

Loiolatarrak bigarren diskoa plazaratu du. Elkarrekin "Blues pasadi zoak". Disko honetan poparen bidea hartu du Senperenak eta grabazioan musikari handien laguntza izan du, hala nola Pedro Barcelo, Gonzalo Tejada eta Diego Vasallo-rena. Amaia Zubiria



Durangoko Azokan zubieta-rraren bakarkako lehen lana erosteko aukera izango da "Haatik" (Elkar). Lan honetan Zubiriak atzera begiratu du eta sortutako sentimenduez mintzo da. Txomin Artolaekin haizean ibilitako emakume honek garai hartako kantu batzuk berreskuratu eta moldatu ditu.



Easo abesbatza

Easo abesbatzako gregoriano taldeak bilduma berria aurkeztu du. Elkarrekin "Cantate Domino Capella Gregoriana" izenekoak. Bilduma, lau diskoz osatuta dago. Musika espirituala gogoko dutenentzako neuririkollana.

Asgharh

Disketxea aldatu du Anorgako heavy boskotea hirugarren lana kaleratzeko. Izan ere, aurrekoak ez bezala, Gorekin egin du "III" hau. Hama kantu biltzen ditu "III" diskoak, haren artean aurrengo Gorakada orako grabatutako "Iaur jota".